

...elkarrizketa

**Carolus Wimmer**

• VENEZUELAKO FRONTE
PATRIOTIKOKO ELEDUNA •

«**Armadako
gehienak
Chavezekin
daude**»

■ **Zergatik atzeratu ziren
maiatzaren 28ko hau-
teskundeak?**

Nazioarteko erakundeetan dugun menpekotasun nabar menagatik. Aurreko hauteskundeetan Espainiako Indra erakundeak bere zerbitzu teknikoak eskaintzen zizkigun; hauteskundearen arlo teknikoaren berme ziren. Azkenengoen, ordea, nazioarteko presioen ondoren, Carter Zentroak Indraren lana zailantzan jarri eta hauteskundearen kontrollean parte hartzea eskatu zuen. Carterrek, garbitasuna bermatu nahi zuela zioen arren, sabotaje hutsa egin zuela iruditzen zaigu guri. Gure ustez, Venezuelako herriak ez du atzerriko enpresen oniritziarik behar hauteskundeak garbiak izan direla ziurtatzeko. Herri hau subiranoa da. Iraultza demokratikoa eta baketsua dugu Venezuelaren, eta subiranotasun nazionalaren alde ari gara borrokan.

■ **Noiz izango dira atzeratu-
tutako hauteskunde-
ak?**

Bi hilabete barru. Azpiegitura teknikoaren menpe gaude.

■ **Zer jarrera hartu dute
indar armatuek proze-
su osoan?**

Armadako gehienak bat dotoz Chavezen proiektuarekin. Guk asko zaintzen dugu Armada; izan ere, betidanik izan dira sektore demokratikoak eta iraultzaileak bere barnean.

Jose Luis Aizpuru
DONOSTIA

...esaera

«*Katua saguarentzat tigre, tigrentzat sagu*»

...hizpideak

**417 gizarte eragile
normalizazio bidean**

■ Hizkuntz normalizazioan urrats garrantzitsua egin zen atzo Donostian. Pauso bat besterik ez da, baina pauso handia. Euren jarduna euskalduntzeko plangintza egiteko konpromisoa hartu zuten ia zazpiehun gizarte eragilek joan den maiatzean eta, Kontseiluaren eskutik, Plan Estrategikoa lantzen hasi ziren hurrengo hilabetean. 23 lan taldetan aritu dira beharrez geroztik eta, alorrez alorreko jarduna euskalduntzeko neurriak proposatu ondoren, ekimen zehatzak abian jar-

tzeko konpromisoak hartu dituzte.

425 gizarte eragilek hitzeman dute zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskariari erantzuteko neurriak hartuko dituztela. Euskararen Ziurtagiriaren bitartez erakutsiko diote gizarteari normalizazio bidean abiatuak direla. Eta,aldi berean, agiria erakusgai duen gizarte eragileak zerbitzuak euskaraz eskaintzeko neurriak hartzeko hitza eman zuela erakutsiko dio Euskararen Ziurtagiriak herritarri.

Keinuak

■ Ezer gutxi jakin da Ipar Koreako estatuburu Kim Jong-Ilek eta Hego Koreako Kim Dae-Jungek atzo Pyongyangen izan zuten batzar historikoaren edukiari buruz. Edukirik ezean, kanpokoari, keinuei, erreparatu diete adituek, eta *Iparreko Kim*-ek Hegoaldekoari aierportuan egindako harreara beroa seinale ezin hobetzat hartu dute. Hala ere, bi Koreen arteko 55 urteko gerra tekniko konpontzeko keinuak baino askoz gehiago behar harko da.

Pilotako Euskal Selektzioa urritik?

■ Aurrera begirako urratsa egin du Euskadiko Pilota Federazioak. Ekainaren 27an ezohiko batzarrira iragarri du Espainiako Federaziotik irten edo ez erabakitzeke. «Koherentziatzko urratsa», Jose Ramon Garai presidenteak jakinarazi duenez, eta urrira begira egindakoa, orduan du eta Nazioarteko Federazioak bere batzar nagusia, eta han erabakiko da eta Euskadikoa Nazioarteko kide gisa onartuko duten edo ez.

**Indarrik gabeko
akordioa**

■ Alardeari buruzko Ponentziak, aho batez, emakumeek alardeetan berdintasunez parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatu du, Legebiltzarrak berak lehendik egin zuen gisan. Baina akordio hori udaletan aintzat hartzeko bitartekoak jarri gabe segitzen dute erakundeek eta alderdi politikoek. Izan ere, Ponentziaren atzoko ebazpenaren ondoren ere, alderdikideek Gasteizen hartutako erabakiei jaramonik egin gabe jarraitu ahal izango dute Irunen eta Hondarribian.

...pertsonaiak



ENRIQUE VILLAR • Eusko Jaurlaritzak kereila kriminala aurkeztuko du Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren aurka. Jaurlaritzak «hiltzaileak laguntzen» dituela esan zuen Villarrek.



ABDELKADER TALEB OMAR • Saharako gatazka konpontzeko erreferendum ez den beste bide guztiak baztertu ditu Saharako Batzorde Nazionalako lehendakari ohiak. Donostian egin ditu adierazpenak.



JULIO CESAR LAMAS • Tau Baskonia saskibaloitaldeko entrenatzaileak baliteke bere tokia uztea aurki. Gasteizko taldeak argentinarrarekin zuen konfiantza galdu du. Baliteke Dusko Ivanovic izatea entrenatzaile berria.

...datua

285 elbarritu (autismoa edo psikosia dutenak) daude gaur egun Bizkaitik kanpoko osasun etxeetan. Markinan zabaldu den zentro berria etortzeko aukera izango dute.

...adierazpena

«*Euskal Herririk ez litzateke izango apusturik gabe. Pilota, arrauna... horiek gabe dena hoztu eta gureak egingo luke*»

Joxe Mari Olasagasti
Aizkolaria

ooo seiko urrea

XABIER OLEAGA

Saioa eta eredia

Ez dakit eredia bukatu den. Saioa ez dadila bukatu. Esan bezain laster konturatu naiz beste hitz batzuekin baina antzerako zerbitzu esan zuela orain hilabete batzuk ETA-k bere eledunetako bat gisa seinatu zuen Kubati presoak. Ez darabilt bere izena neure errotarria irentsarazteko, diodanak batere orijinaltasunik ez duela apalki aitortzeko baizik.

Ezaugarri desberdinetako eszenatoki politiko batera jauzi egin behar dela uste bada, alegia, Euskal Herriari gaur egun aitortzen ez zaion naziotasuna eta subiranotasunerako eskubidea ontzat emango duen eszenatoki, eta bide batez gatazkaren bortxazko osagaia jokamolde dialektiko hutsera eramateko gai izango den esze-

natokira, gaur egun-
go estatutismoak por-
rotik borobilena ho-
rretan izan duelarik;
hori uste bada, diot,
oraindik aukerak
daude.

Ereduak porrot egin izanak, eta ez dakit horrela den ere, ez gaitzala helburuaren porrotera eramana.

ELAren ereduak, alderdi eta erakunde sozial abertzaleek garai batean behintzat ontzat eman dutenak, argi dago mugak, muga serioak, dituela. Abertzale guztiak bildu,



gehiengoa osatu eta bide propioa jarraitu, besteen ahausiei kasurik egin gabe, gehiengo horren gainean zaldun. Horretan ginen orain arte, ez dakit oraindik ere.

EAJ-PNVren esaldi historikoa gezur borobila agertu da. Borroka armaturik gabe, edonora. Argi dago ez dela egia, ezina dela alderdi horretan. Borroka armatuaren aitzakiapean sustraike ezintasunak ezkututzen dira Sabino Araren alderdian. Argi dago Xabier Arzalluzen alderdiak, Ibarre-

txeren Gobernuak —eta ez dut uste mitxelidunen artean dagoenik Laudiokoa, zinez ez dut uste— alderdi espainolista baten eskutik joan beharra daukala eszenatoki berrira. Ezin du hautsi espainolismoarekin duen lotura, eta ez dago, beraz, beste inori beste loturarik hausteko eskatzeko moduan.

Baldintzak horiek dira, agian. Bidea ez da berdina izango. Espainolistengan egin daitekeen presioa ez da berdina izango. Emaitza ere ez da hain ausarta izango epe laburrean. Hori dena egia izanda ere, ezker abertzalearen metodo historien eta nazionalismo historikoaren jokabidearen ahuleziekin ere kontatu beharra dago. Hori dena sartu behar da estrategia berrietarako zakuan.